

Beirazko kanpaia



Plath, Sylvia
Txalaparta, 2022

Idioma: Euskera
Público: Adulto
Páginas: 327
Ejemplares: 20

Unibertsitate-ikaslea da Esther Greenwood, eta poeta bihurtzea du amets. Hilabete oso batez emakumeentzako aldizkari batean editore gonbidatu jarduteko hautatzen dutenean, beraz, ate guztiak zabaltzen zaizkiola sentituko du; New York hirian egindako egonaldi preziatua, ordea, identitate-auzien eta gizarte-arauen zelai gatazkatsu bihurtuko zaio berehala. Kontrajarritzat dituen femeninotasun-eredu biren artean lehian ikusten du bere burua: norberaren helburu eta desirak lehenesten dituen matxinoa eta gizarte-arauen arabera jokatzeko duen emazte-ama. Hilabetea pasatuta eta idazketa-eskola batek bere hautagaitzari uko egin eta gero, amarengana itzuli beharko du Estherrek, eta aterabide zaileko gainbehera emozional bati ekinen dio, ospitale psikiatriko batetik bestera eramanen duena.

Irudiz beteriko eleberri hau, bigarren olatu feministaren garaisuan idatzia, esperientzia pertsonaletik abiatzen da -amatasuna, heriotza, gorputza, eritasuna- gai kolektibo arantzatsuak jorratzeko -eromena, sexua, abortua, suizidioa-. Nobela erdi autobiografikotzat zuen egileak berak, amari bidalitako gutun batean zioenez: □Nire bizitzako gertaerak harilkatu ditut, fikzio bihurtuz, kolorea emateko; bizibidea ateratzeko idatzi dut, baina egiaz uste dut adierazten duela zer bakarrik senti daitekeen pertsona bat lurra jotzen duenean... Saiatu naiz nire mundua eta jendea irudikatzen beirazko kanpai baten lente desitxuratuan zehar begiratuta bezala□.